



ANTONI GAUDÍ I CORNET

Jainkoaren arkitektoa

(1852 – 1926)

ANTONI GAUDÍ I CORNET 1852ko ekainaren 25ean jaio zen. Txikitatik bolumenekin eta formekin ohitua, Reus-en, bere aitak zeukan galdaragintzako tailerrean. Eta familiak, Rudoms-en, Baix Camp zabalean zeukan masian, bere begi urdinek naturaren irudi garbienak jaso zituzten. Natura bere maisurik onena gertatuko zitzaion.

Reus-eko eskolapioetan batxilergoa amaitu ondoren, arkitektura egin zuen Bartzelonako Eskolan. Arkitektura, berriz, bere bizitzako grina izan zen. 1883an, urte gutxi batzuk lehenago hasera eman zitzaien Familia Santuaren elizako obrak, beraren eskuetan jarriak izan ziren. Lanean aritu zen berrogeita hiru urte hoietan eta, bereziki, erabat emanik ibili zen azkeneko hamar urtetan, bere dohai eta indar guztiak Jaunaren aintzaren zerbitzura jarri zituen. Hasera-haseratik, Eliza hark zeukan helburu erlijiosoarekin eta erreparazio zentzuarekin bat egin zen. Eliza hau, oso elizgizona eta liburusaltzailea zen Josep M^a Bocabella-k bere Elkarte Josefinoarekin batera sortua izan zen.

Gaudí karakter sendoko eta zuzeneko gizona zen; baina,aldi berean, oso alaia eta jendearen laguna. Argi zeukan, sakrifizioz gabe, bizitzan eta gauzetan ezin zela aurrera egin; horregatik, bera otoitz bizitzan murgildu eta eskuzabala izan zen urritasun handiaren biaz. Elizaren liturgia maite izan zuen eta Birjina txit santuari eta bere senar Jose Deunari, aingeruei eta santuei debozio handia zien. Pedrera, Errosarioko Birjinari egindako monumentua bezala sortu zuen. Gaudí-k, inoiz, behartsuez inguratuz, ospitale batean hiltzeko desioa azaldu zuen; eta desio hau egi bihurtu zen, tranbia batek harrapatu ondoren, eta han zeudenak bera ezagutu ez eta hain gizon pobrea zela ikusiaz, Santa Krutzeko Ospitalera eraman zuten. Han, 1926ko ekainaren 10an hil zen. Bere azkeneko hitzak hauek izan ziren: "Amen. Ene Jainko, Ene Jainko!". Bere hilobia Elizaren kriptan aurkitzen da.

NORBERAREN ERABILPENERAKO OTOITZA

Jauna, Gure Aita, Antoni Gaudí zure zerbitzariari bere baitan zure Kreazioarenganako maitasun eta zure Semearen haurtzaroko eta pasioko misterioak imitatzeko desio bizia eman zenizkion; egizu, Espiritu Santuaren indarrez, nik ere jakin dezadala neure burua lan on batera eskaintzen eta, egizu, Antoni zure zerbitzaria goratua izan dadila. Orain, emadazu, bere bitartez, eskatzen dizudan mesedea (*eskatu lortu nahi den mesedea*). Jesu Kristo Gure Jaunaren bitartez. Amen.

Jesus, Maria eta Jose, iritsi lezaguzue bakea eta zaindu familia!
(*hiru aldiz*)

Mesedea lortu duenak, eskupekorik eman edota estanparik nahi balu, zuzendu dadila helbide honetara: "**Associació pro Beatificació d'Antoni Gaudí – Ap. Cor. 24094 / 08080 Barcelona**"

Elkarteak honek ez dauka ze ikusirik Gaudí-ren inguruan sortutako beste erakundeekin, ez eta Elizako Obratako Juntarekin.

Elizaren onarpenarekin.

Urbano VIII. Aita Santuaren dekretuei jarraituz, adierazten dugu ez dela nahi, inondik inora, elizaren Agintarien erabakia aurreratu, eta otoitz honen helburua ez dela publikoki egitea.